



Interreg
POCTEFA



BERTAN MUGI edukien kudeatzailearen
erabiltzaile eskuliburua



AURKIBIDEA

SARRERA	3
SAIOA HASTEAK	4
MENU NAGUSIA	5
ERABILTZAILEEN KUDEAKETA	6
ESTATISTIKAK	9
HIZKUNTZAK	12
GELTOKIAK	15
IBILBIDEAK	18
ZERBITZUAK	22



SARRERA

Sakana Garapen Agentziak eta Sakana barnean gizarte-zerbitzuak eskaintzen dituzten elkarteek, zegoen eskariari erantzunez BERTAN MUGI deituriko garraioaren kudeaketarako tresna sortu dute.

BERTAN MUGI-k Android eta iOS mugikorretarako aplikazioa dauka eskuragarri Google Play (Android) eta App Store (iOS) dendetan dohainik deskargatu daitekeena, baita web-orrialde bat ere ibilbideak, ordutegiak, prezioak, eserlekuak etab. bezalako eduki ezberdinak kudeatu ahal izateko.

Hurrengo dokumentu honetan, edukien kudeatzailearen egitura eta funtzionamendua azaltzen da.




SAIOA HASTEAK

Kudeatzailea web-orrialean dagoen lan-tresna bat da, azpian ageri den esteka honen bitartez edozein nabigatzailetatik sartu daitekeena:

<https://bihartech.com/BDPET/NAVARRA/GestorContenidosTransporte/index.html>

Behin karga pantaila igaro ondoren, saioa hasteko pantaila hau agertuko zaigu:




Bertan, guk aurretiaz bidaliriko administratzailearen egiaztapen datuak idatzi beharko dituzu (erabiltzaile izena eta pasahitza).

Egiaztapen datuak zuzenak badira, hurrengo pantailara jarraitu ahal izango dugu: “Menu Nagusia”.



MENU NAGUSIA

Hemendik kudeatzaileko atal desberdinetara sartu ahal izango gara, baita erabiltzaileen kontrol/kudeaketara, estatistikak ikustera eta hizkuntza aldatzera (goiko menu barran aurkitu ditzakegunak).



Erdiko partean atal garrantzitsuenak aurkitu ditzakegu:


GELTOKIAK: Ibilbideak osatuko dituzten geltoki ezberdinen sorrera/edizioa egiteko.

IBILBIDEAK: Ibilbide ezberdinen sorrera/edizioa egiteko.

ZERBITZUAK: Geltokietan eta hauen inguruan aurkitu ditzakegun zerbitzu ezberdinen sorrera/edizioa egiteko.



ERABILTZAILEEN KUDEAKETA




Goiko ezkerreko botoiaren bitartez, kudeatzailea erabili ahal izango duten erabiltzaileak sortzeko azpimenu batetara sartuko gara. Erabiltzaile hauek eduki berriak sortu, editatu eta ezabatzeko gai izango dira, baina edozein kasutan ezingo dute ezabatu beste erabiltzaile batek sorturiko edukirik.


Erabiltzaile nagusia da besteen edukiak ezabatzeko baimena daukan pertsona bakarra.

Hurrengo argazkian ageri den bezala, erabiltzaile nagusiak sorturiko erabiltzaileen zerrenda ikusi dezakegu eta botoi bat izango dugu bakoitzaren sarbide datuak aldatzeko edo kontua ezabatzeko.





Horretaz gain, goiko ezkerreko aldean + ikurra daukan beste botoi bat ikus dezakegu, erabiltzaile berriak sortzeko balio duena. Klik egiterako unean baieztapen pantaila agertuko zaigu BAI edo EZ aukeratzeko.




bihArtech activity

EZ klikatuz gero, pantaila ezkutatuko da eta erabiltzaileen zerrendara bueltatuko gara. BAI sakatuz gero, datu basean erabiltzaile bat sortuko da izen eta pasahitz aleatorio batzuekin (datu hauek, editatzeko botoia sakatuz aldatu ditzakegu).

**Garrantzitsua da azpimarratzea, kudeatzailean edozer aldatzen den bakoitzean, testu eremu bat, aldagai berri baten aukeraketa edo edozein informazioaren aldaketa bada ere, gordeketa automatiko bat egiten dela, ez gaitezen uneoro kezkatu gordeketa botoi bati eman behar izateaz.*



ESTADÍSTIKAK




Karratu gorriaz inguraturik dagoen botoia sakatzean, estatistiken pantailara sartuko gara. Bertan, mugikor plataforma ezberdinetan eginiko deskargen zenbatekoa ikusiko dugu, baita erabiltzaileek aplikazio mugikorrean erabiltzen duten hizkuntza, aplikazioko atal ezberdin bakoitzean ematen duten denbora, erabiltzailearen generoa (datua erraztu badigute), erabiltzailearen adina (aplikazioaren barruan eskatzen dena), erabiltzaile guztiak batuta ematen den aplikazio erabilpen denbora totala eta aplikazioan egon den sarrera kopuru totala erabiltzaile guztiak batuta.


Goiko ezkerreko ikonoa klikatuz gero:



bihArtech activity



Ibilbide ezberdinen informazioa bateratzen duen pantaila batera helduko gara:




Menu zabalgarrian, grafiko nagusian zenbat ibilbide ikusi nahi ditugun aukeratu dezakegu. Ibilbide bakoitza kolore batekin agertuko da, eta ibilbidearen izen azpian, zenbat pertsonen erabili duten ikusi ahal izango dugu.



bihArtech activity


Beheko eskumako aldean, aplikazioan orain arte erabili diren ibilbide kopuru totala erakusten zaigu.

Informazio guzti hau, beheko irudian gorriz markatuta dagoen botoia sakatuz Excel fitxategi batera esportatu dezakegu:




HIZKUNTZAK

Automatikoki sortuta dauden hizkuntzak euskara, gaztelera, ingelesa eta frantsesa dira, gorriz markaturiko botoia sakatuta beste bat gehitu daitekeen arren.




Hizkuntza zerrendaren barruan, hizkuntzaren izena eta bere kodea (Google Translator-en ageri den kode bera) ageri dira, editatzeko edo ezabatzeko bi botoirekin batera.



bihArtech activity

Goiko eskumako aldean + ikurra duen botoi bat ikus dezakegu, hizkuntza berri bat gehitzeko balio duena. Klik eginez gero, Google Translator-en dauden hizkuntza guztien menu zabalgarri bat agertuko da. Hauetako bat sakatuz gero, gure hizkuntza zerrendara gehituko da eta erabili ahal izango dugu.



Jarraian, bere edizio botoia klikatu beharko dugu itzulpenak bete ahal izateko.



bihArtech activity


Aurreko irudian ikus dezakegun bezala, 2 zutabe ageri dira, ezkerrekoa itzuli behar diren hitz/esaldiekin eta eskumako zutabea, dagokion itzulpena txertatzeko testu eremu editagarriekin.

Goiko ezkerreko aldean, Google Translator-en dauden hizkuntza guztiak dauzkan menu zabalgarri bat dugu, itzulketa automatiko bat egiteko balio duena (Google Translator-en API-aren bitartez). Google Translator-ek ez daukanez %100-eko fidagarritasuna, testu eremu guztiek editagarriak izaten jarraitzen dute guk aldatu ahal izateko.

Aukera hau, hitz/adierazpen errazen itzulketa lana bizkortzeko laguntza bat da.

Hurrengo irudian ikus dezakegun menu zabalgarrian erabilgarri dauzkagun hizkuntza guztien zerrenda bat ageri zaigu.

Zerrendako hizkuntza bat aukeratzen denean, eskumako menu zabalgarrira gehituko da. Hauek, erabiltzen ari garen hizkuntzak izango dira eta beraz erabiltzaileek mugikorreko aplikazioan ikusiko dituztenak.




Eskumako zerrendako hizkuntza batean klik egiterakoan, zerrenda horretatik ezabatuko dugu, eta beraz, aplikazio mugikorretik ere bai.



GELTOKIAK

Menu Nagusiko Geltokien botoi gainean klik eginez gero, geltokien kudeaketara sartuko gara, scroll bertikal bat bezala diseinatu dena, zeinetan gora edo behera mugitu gaitezkeen zerrendako eskumako barraren bitartez edo ordenagailuaren sagua bera erabiliz.

Kudeatu ditzakegun gainerako pantailek (Zerbitzuak eta Ibilbideak) geltokien antzerako diseinua mantentzen dute, beraz, atal hau sakontasunez azalduko dugu eta gainerakoetan informazio espezifikoan bakarrik zentratuko gara.



Goiko aldean tresna ezberdinak dauzkan barra bat daukagu, ezkerretik eskumara hauek aurkitu ditzakegu:

- + Botoia: Geltoki berri bat sortu
- - Botoia: Aukeratutako geltokia ezabatu
- Menu zabalgarri grisa: sortu ditugun geltoki guztiak ageri dira (zerbitzu edo ibilbideen kasuan bakoitzari dagokiona) eta horietako bat klikatzerakoan, geltoki bat aukeratzen dugu eta honi buruz biltegitratuta daukagun informazio guztia erakusten zaigu.
- Hizkuntzen menu zabalgarria: Hizkuntza bakoitzerako daukagun informazioa bete beharko dugu.
- X Botoia: Menu Nagusira irtetzeko.


Geltoki bakoitzean bete beharreko informazio eremuak hauek dira:



- Izena.
- Beharrezko argazkia.

Artxiboak kargatzeko modua berdina da atal ezberdinetarako. Hasteko, irudiaren ikono gainean klikatuko dugu. Jarraian, beheko partean gorri koloreko botoi bat ikusiko dugu, bertan “Beharrezko argazkiaren Jpg artxiboa aukeratu” irakuriko dugu.

Botoi hori klikatuz gero, artxibo bilatzaile bat irekiko zaigu, gure ordenagailuan argazkia bilatu ahal izateko.



Behin artxiboa aukeratu dugunean, botoi gorriaren ondoan daukagun grisa den beste botoia aktibatuko zaigu, zeinetan “(Artxiboaren izena) plataforman eguneratu” jartzen duen. Bukatzeko, botoi gris hori klikatuko dugu artxiboa kudeatzailean kargatu dadin.


Kargaren %-aren zenbatekoa agertuko zaigu eta behin 100-era heltzean, artxiboa plataforman kargatuta dagoela esan nahi du eta lehenengo pausuan sakatu dugun ikonoaren gainean agertuko dela ikusiko dugu.

- QR kodea: QR kode hau gauden geltokian aurkitu dezakegu (ez beti) mugikorreko aplikazioaren bitartez honen informazio fitxa ireki ahal izateko.
- Deskribapena: Bertan geltoki bakoitzaren informazioa gehitu dezakegu.
- Herrialdea eta eskualdea: Europar Batasunean dauden herrialde guztiak, bakoitzak daukan eskualde edo antzekoekin barneratu dira.



bihArtech activity

- GPS kokapena: geltokiaren latitudea eta longitudea, mugikor aplikazio barruko mapan erakusteko balioko diguna. Behin koordinadak sarturikoan, V itxurako ikonoa sakatu behar da mapan ikusi ahal izateko eta datuak ondo sartu ditugula baieztatzeko. Azkenik, diana itxurako botoi bat dago, maparen bista erdian jartzeko balioko diguna.
- Turismoa/Zerbitzuak: Ezkerreko zutabean, sortu ditugun zerbitzu guztien zerrenda bat daukagu. Bakoitzak ikono bat dauka, zeina klikatuz gero, zerbitzu hori gauden geltokiari gehituko diogun. Modu berean, eskumako zutabean, geltokiak dauzkan zerbitzuen zerrenda ikusi dezakegu, ezabatzeko zerbitzu baten ikonoa klikatuko dugu eta zerbitzu hau ezkerreko zutabera bueltatuko da.



IBILBIDEAK

Menu Nagusian, Ibilbideen botoia klikatuz gero, hauen kudeaketa gunera sartuko gara.

Arakil - Irurtzun

IBILBIDEAK

eu

Arakil - Irurtzun

EUS Ruta que empieza en Arakil y termina en Irurtzun

Eskuragarri dauden eserlekuak

22

Ordutegia

M T W T F S S

Partida 11 ∨: 44 ∨ Devolver 13 ∨: 46 ∨

Joan-etorria

interreg POCTEFA

Telefonoa


Posta elektronikoa

Jarri harremanetan eserlekua erreserbatzeko

Ikusten dugun lehenengo gauza, goiko barran geltokietan zeuden ikonoek gainera beste berri bat dagoela da, gidari rol-a daukaten erabiltzaileak kudeatzeko balio duena. Erabiltzaile hauek mugikorreko aplikaziora gidari modura sartu ahal izango dira.

Aipaturiko botoia sakatzerakoan, kudeatzaileek erabiltzaileak sortzeko daukan pantailaren antzeko bat aurkituko dugu, + botoia goiko ezkerreko aldean duelarik, gidari berriak sortuko ditugu (zerrendatik editatu edo ezabatu ahalko ditugunak).






Hau da Ibilbide bakoitzen bete beharreko informazioa:

- Izena.
- Deskribapena.
- Eserleku erabilgarriak: Garraioak dauzkan plaza erabilgarriak.
- Joan-Etorria: Ibilbideak joan-etorria daukan zehazteko, jotzat ematen da itzulerako bidaiak joaneko geltoki berak dauzkala baina kontrako noranzkoan.
- Orduategia: 7 botoi dauzkagu (Al, Ar, Az, Og, Ol, Lr, Ig) asteko egun bakoitzari dagozkionak. Banan-banan aukeratu behar ditugu eta zerrenda gaineko + botoia klikatzen joan, egun horretan orduategiak gehitzeko. Joaneko eta Itzulerako orduategiak betetzen joan behar da (Joan-Etorria markatu dugun kasuetan).
- Telefonoa: Honetara deitu ahalko da erreserba telefonoz egin nahi izanez gero.
- Helbide elektronikoa: Honetara idatzi ahalko da erreserba bat egiteko.
- Web-orrialdea: Erabiltzaileek mugikorreko aplikaziotik bisitatu ahalko duten esteka bat.
- Geltoki Guztiak: Eskuragarri ditugun geltoki guztien zerrenda. Transferentzia botoi gainean klikatuz, geltokia gehituko diogu aukeraturiko ibilbideari, geltokien zerrenda totaletik desagertuz eta beheko "Ibilbideko Geltokiak" zerrendan agertuz. Gainera, eskuman ageri den mapan kokatuta ikusiko dugu (ikusten dugunez beheko aldean geltoki guztiak aldi berean ezabatzeko, maparen bista zentratzeko eta geltoki batean klik bikoitza eginez gero, hau bakarrik ezabatzeko aukerak dauzkagu).





- Ibilbideko geltokiak: Bertan zerrenda erabilgarri totaletik ibilbidera gehitu ditugun geltokiak ageri dira. Elementu bakoitzak gorako gezia, beherako gezia eta paperontzi bat dauzka. Paperontziak geltokia ibilbidetik ezabatzeko balio du, geziekin geltokiak ordenatu ditzakegun bitartean. Ibilbidea goren ageri den geltokian hasiko da eta beheren daukagun geltokian bukatu, hurrenez hurren.

Ibilbideko geltokien zerrendaren gainean botoi bat (horzdun gorpila) dago ibilbidearen tarte ezberdinak kudeatzeko balio duena.

Tarte bezala ulertzen da, geltoki batetik hurrengo geltokirako bidea (horregatik da hain garrantzitsua ondo ordenatzea).

Tarteen zerrendan fijatzen bagara, ikus dezakegu tarte bakoitza ezkerrean ageri den geltokian hasten dela, eta eskuman agertzen den geltokian bukatzen dela.

Tarte bakoitza egiteko, bide hori burutzeko beharrezkoa den iraupen bat estimatu behar da, baita bidaiariarentzako tarte horrek duen kostua ere bai.

Informazio honekin, mugikorreko aplikazioaren barnean, bidaiaren iraupena eta kostua zehaztuko ditugu.



bihArtech activity

Atalen konfigurazioa

Satrustegi	Iraupena (min)	5	Ekai
	Prezioa (€)	1, 0	
Ekai	Iraupena (min)	10	Egiarreta
	Prezioa (€)	1, 0	
Egiarreta	Iraupena (min)	5	Etxeberri
	Prezioa (€)	0, 35	
Etxeberri	Iraupena (min)	5	Urritzola
	Prezioa (€)	0, 50	


Interreg POCTEFA

Gidaria: Gidari guztien zerrenda bat agertuko zaigu, ibilbide hau burutuko duen gidaria aukeratzeko eta zehazteko.



ZERBITZUAK

Menu Nagusian, Zerbitzuen botoia klikatuz gero, honen kudeaketa egiteko aukera izango dugu geltoki bakoitzean aurkitu ditzakegun zerbitzuak zehaztu ahal izateko.



Hauek dira zerbitzuen atalean bete beharreko informazio eremuak:

- Izena.
- Argazkia.
- Deskribapena.
- Helbidea.
- Telefonoa.
- Helbide elektronikoa.
- Web-orrialdea.
- Facebook-eko esteka.
- Twitter-eko esteka.
- Instagram-eko esteka.
- GPS kokapena: latitude eta longitude koordenadak mapan kokatu ahal izateko.

